

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) suizidioa munduko lehen mailako osasun publikoko arazotzat jotzen du, zeinaren aurrean erakunde eta botere publikoek esku hartu dezaketen eta egin behar duten. Horregatik, erakundeak hainbat urte daramatza munduko herri guztiei funtsezko bi mezu helarazten: suizidioak prebenitu daitezkeela (denak ez badira ere, horietako asko bai) eta osasun-sistema nazionalak suizidioaren prebentziorako plan nazional bat izan beharko luketela. 2014ko argitalpenean (Preventing Suicide; a Global Imperative) zifra ikaragarria adierazi zuen, hau da, suizidio bat gertatzen zela berrogei segundo bakoitzeko munduko lekuren batean. Balioespenak besterik ez dira. Errealitatea, txostenak berak dioten bezala, nahiko gogorragoa da.

Gure testuinguruan ere zifrak kezkarriak dira, baina gutxi ezagutzen dira: Espainian urtero suizidioek eragindako heriotzak trafiko-istripuek eragindakoen bikoitza baino gehiago dira; hamar heriotza egunero, eta horien aurrean dagoen jarrera, oro har, isiltasuna edo ezkutatzea dira. Osasun publikoko arazo larria da, eta ez dago horri aurre egiteko estatuko esku-hartze planik; soil-soilik prebentzio-neurri heterogeneo batzuk autonomia-erkidego, udalerrri edo osasun-zentro espezifiko batzuetan, eta ekimen pribatu eta boluntarista batzuk. Eta suizidioen kopurua murrizteko helburu-ezarpena eta estrategia-inplementazioa eskasak badira, hildakoen hurbilekoei ez zaie ia inolako arretarik eskaintzen osasun publikoaren eremuan

Helburuak

Osasunaren eremuan dauden agenteei, euren lanbidea suizidioekin zuzenean lotuta dauden gaietan garatzen duten pertsonen (komunikabideak, ikertzaileak, irakasleak eta abar), eta gaiarekiko interesa duen beste edozeini prestakuntza ematea. Arazo sozial bat ikusaraztea, ia erabat ezkutatuta dagoen baina ondorio sozial eta pertsonal larriak dituen errealitate baten berri ematea. Hain bazter utzita eta estigmatizatuta dagoen esparru horri buruzko hausnarketa sustatzea: estigma-, abandonu- eta axolagabekeria-egoera horren arrazoiei buruzko galderak egitea. Ikerketa sozialeko premiak identifikatzea. Esparru horretan dauden esku-hartze sozialeko hutsune eta premiei buruzko hausnarketa elkarrekin egitea. Arazoan inplikaturik dauden beste agente sozial batzuk daudela jakitea: biziraun dutenak. Jardunaldi hauen emaitzen berri ematea jende espezializatuari eta jendeari oro har.

Jardunaldiak norentzat diren

Osasunaren eremuko agenteak (adimen-osasuna, lehen mailako arreta, auzitegiko sanitarea, larrialdiak eta abar). Suizidioak edo saiakuntzek eraginpean hartutako pertsonak. Unibertsitateko ikasleak. Ikertzaile sozialak. Komunikabideak. Hezkuntzaren eremuko pertsonak. Gaiari buruzko interesa duen edozein pertsona.

Antolaketa-batzordea


Iñaki Márquez (OME/AEN), Cristina Blanco (UPV/EHU), Marijose Pérez, Manuel Fernández, Virginia Guillén (UPV/EHU), Begoña Gutiérrez (OSALDE), Arantza Urzelai (OSALDE)

Erakunde antolatzaileak

OSALDE; OME/AEN; UPV/EHU (Soziologia 2 Saila)

Erakunde laguntzaileak

UPV/EHU, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea. DFB/BFA, Bizkaiko Foru Aldundia



AIDATU

Asociación Vasca de Suicidología / Euskal Suizidologia Elkarte

I. jardunaldiak

Suizidioa

Estigmaren eta abandonuaren artean Osasun publikoko arazo bat

Bilbo, 2017ko azaroaren 3-4

ONDARE Aretoa

(Bizkaiko Foru Aldundia / Diputación Foral de Bizkaia)

M^a Díaz de Haro, 11



Azaroak 3, ostirala

16:00 - 16:15	Harrera eta akreditazioak
16:15 - 16:30	Jardunaldien aurkezpena
16:30 - 18:00	Suizidioa, fenomeno ezezagun hori. Hurbilketa arlo sozialetik eta osasun-arlotik Txostengileak: Andoni Anseán. Adimen Osasuneko Kudeaketa Kliniko eta Sanitarioko Masterraren eta Jokabide Suizidaren Masterraren zuzendaria Sevillako Pablo Olavide Unibertsitatean. Suizidologiako Espainiako Elkarteko eta Salud Mental España Fundazioko presidentea da. Ordezkaría IASP elkartean. Iñaki Markez. Psikiatra. OME-AEN eta Osaldea. Moderatzailea: Cristina Blanco. Soziologoa. EHUko Soziologia Irakaslea.
18:00 - 18:30	Atsedena
18:30 - 19:15	Suizidioaren psikiatrizarazioa: soziobiologiari DSMra Txostengileak: Guillermo Rendueles. Psikiatra eta saiakeragilea. UNEDko irakaslea. Asturias Moderatzailea: Iñaki Markez
19:15 - 20:00	Suizidioaren azterketa beste testuinguru batzuetan. Txostengileak: Pablo Hein. Soziologoa. Errepublikako Unibertsitatea. Uruguai Moderatzailea: Marjose Pérez. Pedagogoa.
20:00	Dokumentalaren proiektzioa Moderatzailea: Manuel Fernández. Soziologoa.

Azaroak 4, larunbata

9:15 - 10:00	Esku hartzeko proposamen bat. Gipuzkoako Adimen Osasuneko Sarea Txostengileak: Andrea Gabilondo. Psikiatra. Gipuzkoako Adimen Osasuneko Sarea Moderatzailea: Virginia Guillen. Psikologoa. EHUko neurozientzietako irakaslea
10:00 - 12:00	Jardun-eremuak. Zer egiten dugu? Zer egin daiteke? Mahai-ingurua: Jon García Ormaza. Psikiatra, Zamudioko Ospitalea Mabel Marjúan. Medikua, EHUko bioetika-irakaslea Sandra Ranea. Segurtasun zuzendari Ertzaintza. Ana Abasolo. Auzitegi-Patologia Medikua. Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutua Moderatzailea: Iñaki Markez
12:00 - 12:30	Atsedena
12:30 - 13:00	Bizirauleak Txostengileak: Eva Bilbao/Agustin Erkizia. BIZIRAUN, Pertsona maite baten suizidioak eraginpean hartutako pertsonen elkarte Moderatzailea: Cristina Blanco
13:00 - 13:40	Diagnostikoak, iradokizunak, etorkizuna. Parte hartzeko gunea Moderatzailea: Marjose Pérez.
13:40 - 14:00	Jardunaldien itxiera. Ekimenak gure eremuetan: etorkizun hurbilerako lan-ildoak Andoni Anseán eta Cristina Blanco

Informazioa, harremanetan jartzea eta izen-ematea

Elkarte kideak (edo bazkide berriak).....	25€
Ikasleak eta prestakuntzan dauden pertsonak (egiaztagiriarekin).....	25€
Gainerakoak.....	35€

Izena eman ahal izateko, izena emateko orria, diru-sarreraren dagokion frogagiria (Izena adieraziz) eta prestakuntzan egotearen frogagiria (hala dagokionean) bidali behar dira posta elektronikoz honako helbide honetara:

OSALDE.....	op.paisvasco@gmail.com
Kontu korrantea (OSALDE).....	BBK 2095 0084 35 2000233536
OSALDEren telefono-zenbakia:	94 600 99 47

Izen-emateko berreste-data: 2017ko urriaren 27a

Ziurtagiriak

Beratarzen direnei honako hau emango zaie:

- Beratarzte-ziurtagiria.
- Osasungintzako Lanbideen Etengabeko Prestakuntzarako Euskal Kontseiluak emandako Etengabeko Prestakuntzako Egiaztagiria

Izen-emateko boletín (**)

(*) Deiturak.....

(*) Izena.....

Erakundea/Elkartea/Lantokia.....

Lanpostua, kargua.....

Posta helbidea.....

PK..... Udalerrri Probintzia.....

Telefono zbk..... Email:.....

(*) Inskripzioko mota: bazkidea

Ikasle

Beste batzuk

(*) nahitaezko datuak

(**) 15/99 Datu-Babesetako Lege Organikoan jarritakoarekin ados, informatzen dugu jasotako datuak efektuetara izango direla, bereko antolatzaileek zaindutako fitxategi baten parte izatera pasatuz, ekitaldi honen antolaketako soilik. Datuak ez zaizkie beste antolaketarik utziko Edozein pertsonak alda dezake edo eskaintako informazioa baliogabe dezake. Hartarako, posta elektronikoz bat bidaltzea: op.paisvasco@gmail.com